# Gaur hasiko dira Kultura eta Bakearen XIII. Jardunaldiak

**GERNIKA GOGORATUZ** "Bakea bitarteko baketsuen bidez" lelopean abiatuko da ekimena

**Europa Press** Bilbo

GERNIKA GOGORATUZ bakearen aldeko ikerkuntza zentroak Kulturaren eta Bakearen XIII. Nazioarteko Jardunaldiak antolatu ditu gaurtik eta apirilaren 29a arte. Ekimenaren izenburua "Bakea bitarteko baketsuen bidez" da, eta Johan Galtung arlo honetako ikertzaile nabarmenetako batek hartuko du parte.

Maria Oianguren Gernika Gogoratuz zentroko presidenteak Bilbon egindako prentsaurrekoan atzo adierazi zuenez, «esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko espazio» izan gura dute jardunaldiek. Horretarako, 1937ko Gernikako bonbardaketan izan zirenen parte hartzea ere izango dute.

Jardunaldietan zehar, bakea lortzeko giltzarriak argitzen saiatuko dira, besteak beste, gatazken indarkeriarik gabeko eraldaketa eta indarkeria kulturalaren ezabaketa. Zentzu horretan, Johan Galtung-ek "Bakea bitarteko baketsuen bidez. Bakea eta gatazka, garapena eta zibilizazioa" bere obraren edukia azalduko du, datorren astelehenean, Bilboko Bidebarrieta Liburutegian.

Lan horretan, «bakeari buruzko ikerketen oinarri diren ideia, teoria eta aurreikuspenen panorama interesgarri eta handizalea» egiten du bakeari buruzko ikerkuntza modernoaren aitatzat jotzen duten Galtung-ek.

**Tailerrak**

Era berean, jardunaldietan bi tailer egingo dira: "Bakearen aldeko hezkuntza Europan" eta "Gazteen zeregina gatazken eraldakuntzan". Bi ekimen hauek dozena bat ikastetxetan egingo dira, Unescorekin elkarlanean.

«Bakea prozesu bat da eta prozesu luzea da. Berehalako emaitzak gutxitan dira onak», azaldu zuen Oiangurenek.




"Gernika Gogoratuz" ikerkuntza zentroak prentsaurrekoa egin zuen atzo. **Oskar Martínez**

> «Bakea prozesu bat da eta prozesu luzea da. Berehalako emaitzak gutxitan dira onak»
>
> **Maria Oianguren** "Gernika gogoratuz"

## Bakea hizpide

**AURTENGO jardunaldietan ere bi hitzaldi izango dira. Estrainekoa bihar egingo da eguerdiko 12:00etatik 14:00etara bitartean. "Gatazkaren ondorengo berreraikuntzarako giltzarriak" izenburupean egingo da. Bertan izango dira EHUko irakasle Noé Cornago, GAIN-eko kide Gabriel Ezkurdia edo Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle Raul Romeva. Bigarren hitzaldia asteartean izango da, arratsaldeko 16etatik 19etara bitartean. "Bakea bitarteko baketsuen bidez eta indarkeri kulturala euskal kasuari aplikatuz eta nazioarteko testuinguruan" izango da eztabaidagai. Gorka Espiau (Elkarri) edo Mikel Urkiola (Gesto por la Paz) izango dira hizlari. DEIA**

# El Gobierno vasco destina 600.000 euros de ayuda a Irak

**HUMANITARIA** Se repartirán entre las ONGs que atienden a la población civil

**Europa Press** Donostia

EL CONSEJERO de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno vasco, Javier Madrazo, acusó ayer al presidente del Gobierno español José María Aznar, de «tener la manos manchadas de sangre por ser responsable político» de la guerra contra Irak.

Madrazo hizo estas declaraciones ayer en Donostia donde anunció que el Gobierno vasco destinará, con carácter extraordinario, 600.000 euros a ONGs para financiar las acciones humanitarias que tengan como objetivo atender a la población civil de Irak, afectada por el ataque militar lanzado por Estados Unidos.

Estas ayudas están destinadas bien a los que están dentro del territorio de Irak, bien a los refugiados en otros estados limítrofes con Irak y, tienen como objetivo principal «paliar el sufrimiento de la población de Irak, víctima inocente del ataque».

El director de Cooperación al Desarrollo del Gobierno vasco, Igor Irigoyen, explicó que es la primera vez que el Ejecutivo concede este tipo de ayudas.

Las subvenciones serán utilizadas en elementos de primera necesidad, tales como alimentos básicos, atención sanitaria y agua potable, entre otras cosas, y el plazo de presentación de ayudas culminará el 19 de mayo.

# El tripartito condenará en el Pleno las ejecuciones de Cuba

**PROPUESTA** Rechaza «sin paliativos» las penas de cárcel a los opositores

**FIN** Solicita el «inmediato» levantamiento del embargo de Estados Unidos

**Vasco Press** Gasteiz

PNV, EA E IU/EB defenderán en un próximo pleno del Parlamento vasco una propuesta para condenar las recientes ejecuciones practicadas por el Gobierno de Cuba y rechazar «sin paliativos» las penas de cárcel aplicadas contra varios opositores al régimen de Fidel Castro. La iniciativa del tripartito solicita asimismo el «inmediato» levantamiento del embargo de Estados Unidos contra Cuba. Los partidos que sustentan el Gobierno vasco han tramitado esta proposición no de ley al considerar que las citadas ejecuciones suponen «una reanudación injustificable de medidas represivas extremas y evidencian un clarísimo déficit en el respeto de derechos y libertades fundamentales», tales como el derecho a la vida y las libertades de expresión, reunión, manifestación o asociación.

Asimismo, expresan también en su propuesta simpatía y aprecio hacia el pueblo cubano «al cual nos unen lazos históricos de solidaridad y cooperación» y solicitan el «inmediato levantamiento del embargo unilateral de Estados Unidos» contra la isla.

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu 943 30 35 55 / 943 30 35 54 • 635733389 / 635733388 telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu

Egunero